

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2019KO AZAROA


Euskal AEko industria-jarduera %3,6 igo zen 2019ko azaroan

Industria-produkzioaren indizeak %1,1eko hazkundera izan du 2019ko lehen hamaika hilabeteetan

Euskal AEko industria-produkzioa %3,6 igo zen 2019ko azaroan, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera. 2019ko lehen hamaika hilabeteetako balantzea %1,1eko hazkunde metatuarekin itxi da, 2018ko aldi beraren gainean.

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2019ko urria), Euskal AEko industria-produkzioa egonkor mantendu zen (%0,0), urtaroko eraginak zuzendu ondoren.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2019ko azaroko indizearen bilakaerak, 2018ko azarokoarekin alderatuta, emaitza desberdinak izan ditu industria-sektore handietan, norakoaren arabera. *Ekipoko Ondasunak* %11,00 igo dira, *Bitarteko Ondasunak* %1,1 eta *Kontsumoko Ondasunak*, oro har, %0,8. Azken horien barruan, *Kontsumoko Ondasun Iraunkorrak* %4,1 igo dira, eta *Kontsumoko Ondasun Ez-iraunkorrak*, berriz, ez dira aldatu (%0,0). *Energia*, azkenik, %2,9 jaitsi da.

2019ko azaroko hilabete arteko aldakuntzak, 2019ko urriarekiko, zeinu positiboa du *Ekipoko Ondasunen* sektorean (%2,1 hazi da) eta *Bitarteko Ondasunen*ean (%0,8 igo da). Alderantzizko zentzuan, *Energia* %7,8 murriztu da, eta *Kontsumoko Ondasunak*,

oro har, %0,5; izan ere, *Kontsumoko Ondasun Ez-iraunkorrak* %1,5 jaitsi dira, eta *Kontsumoko Ondasun Iraunkorrak* %4,0 hazi.

Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2019ko azaroan urte arteko hazkunderik handienak izan dituztenak hauek dira: *Garraio-materiala* (%22,6), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%3,6) eta *Metalurgia eta Produktu metalikoak* (%2,6).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	2,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	3,6
09 - Kautxua eta plastikoak	2,3
13 - Makineria eta tresneria	0,4
14 - Garraio-materiala	22,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-1,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	0,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Aitzitik, urte arteko beherakadak gertatu dira sektore garrantzitsu hauetan: *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (urtetik urtera %1,6 gutxiago) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (%1,3 gutxiago).

Lurraldearen arabera, Industria Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban %4,9 igo da, Bizkaian %3,5 eta Gipuzkoan %2,9.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Azaroa

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Aza2019 / Aza2018	A(Aza2019) / A(Aza2018)(*)	Aza2019 / Urr2019	Urr2019 / Ira2019
Indize orokorra				
Euskal AE	3,6	1,1	0,0	-0,4
Araba/Álava	4,9	-2,8	1,0	0,6
Bizkaia	3,5	4,2	-1,4	-1,3
Gipuzkoa	2,9	0,4	0,9	0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	0,8	2,4	-0,5	-0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	4,1	2,6	4,0	-3,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,0	2,4	-1,5	-0,4
Ekipo-ondasunak	11,0	0,9	2,1	-1,3
Bitarteko ondasunak	1,1	-0,4	0,8	-0,9
Energia	-2,9	5,7	-7,8	2,7

(*) 2019ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62